

Donostian, 2018ko urtarrilaren 17an

## IDAZKARI NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, UDAL EGUTEGIAN JESUSEN BIHOTZA JASO IZANARI BURUZKOA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garin naizen honek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO egiten dut, ZERBITZU OROKORREN batzordeak abenduan izandako bileran Urgull mendiko Jesusen Bihotza sartu izanaz egindako interpelazioaren ondorioz.

## JUSTIFIKAZIOA

Jesusen Bihotzaren irudi bat jarri du otsaileko orrian aurtengo udal egutegiak.

Duela hilabete batzuk, Irabazi Donostiakoek osoko bilkuran azaldu genuenez, Jesusen Bihotza frankismoaren gorespen argiaren sinboloa da. Orduko udal gobernu frankistaren iritziz, monumentua eraikitzearen helburua odolez eta suz ezarritako erregimena goratzea zen, demokrazia errepublikanoaren aurka. Orduko udal Gobernuaren erabakia jasotzen zuen aktak honela zioen: “hiri honetan Monumentu itzel bat altxatu behar da Jesusen Bihotzaren estatua erraldoia izango duena buruan, Buruzagiaren jeinuak gidatuta beren bizia haren alde eta Espainiaren alde eman dutenak hartuko dituen haren besape maitagarrian”.

Nahiz eta udal Gobernua gertaera horren jakitun da, hasiera batean, kontu hori planteatu genuenean, monumentua bera frankista zen salaketari entzungor egitea erabaki zuen. Hilabete honetako batzordean, frankista dela aitortu zuten. Udal Gobernua horren jakitun bada ere, monumentua gorestea erabaki du, herritarrentzat frankismoaren edozein modutara goresteak sorraraz dezakeen mespretxuari muzin eginez. Udalak argudiatzen duenez, aipatutako monumentuari herritarrek beste esanahi bat eman diote.

Hala ere, Irabazi Donostiakoek ustez, lehenik eta behin, herritarren artean egia zabaldu behar da, jatorriari eta une historiko hartan eraiki zutenen helburuari buruzko informazioa ematen

duen erakusketa publiko baten bidez, egia aitortzeko ekitaldi bat egin, hala, aipatutako monumentuaren oinarrian informazio hori eskura dezaten hura ezagutu nahi duten pertsonak.

Udalak balio demokratikoak eta egia, justizia eta kalteen konponketaren printzipioak, nahiz ez-konfesionaltasuna aldeztu dituen instituzio publiko modura, hura argitaratzea ez ezik, eskulturaren errealitatea, nork eraiki zuen eta zein helbururekin aipatzen ez dituen testu bat gaineratzea erabaki du. Irudiarri erantsitako testuak berak ere ez du aitortzen monumentu horren jatorria benetan zein den. Egia ezagutzeko aukera bat galdu dute.

Oroimen kolektiboa ezin da inola ere eraiki ahanzturan oinarrituta, eta horixe egin nahi dute Urgulleko Jesusen Bihotza monumentuarekin.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

#### KONTROL MOZIOA

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hurrengo udal egutegietan ideologia faxista goraiatzeko egindako elementuak sartzea saihesteko.
2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari ekimen publikoren bat sustatzea (erakusketa, monumentuaren oinarrian azalpen plaka ezartzea), Urgulleko Jesusen Bihotzari buruzko egia ezagutzera emateko, hiriaren oroimen kolektiboa eraikitzen jarraitzeko, egiaren, justiziaren eta konponketaren printzipioetan oinarrituta.

Sinatua: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.